



Txostena

2012

AURKIBIDEA

Liburutegia zenbakitan 5

 Bisitak/Erabiltzaileak 5

 Bazkide txartela duten erabiltzaileak 5

 Asistentziak ordutegi berezietan 5

 Katalogazioa eta funtsa 6

 Jatorria kontuan hartuta urteko sarrerak 7

 Desideratak 8

 Web, blogak eta OPAC kontsultak 8

 Mailegua 8

 Mailegua euskarriaren arabera 9

 Mailegua Liburutegi bakoitzean 10

 Mailegua hizkuntzen arabera 11

 Mailegua sexua eta adinaren arabera 12

 Liburutegien arteko mailegua 13

 Mailegua herriz herri 14

 Erreserbak 14

 Bazkideak adinaren arabera 15

 Gehigarriak 16

 Mailegatuena 17

 Erreserbatuena 19

Datu ekonomikoak 21

 Jasotako diru-laguntzak 22

Ekipamendua 22

 Azalera metro karratutan 22

 Irakurtzeko tokiak 22

 Ekipamendu informatikoa eta bestelakoa 22

Irakurketa bultzatzeko jarduerak 23

Martxan jarritako proiektuak 35

 Irakurketa klubak (Sareko programan sartu) 35

 Alfabetizazio digitala eta bizitzan zeharreko ikaskuntza 35

Prestakuntza ikastaroak 35

Euskal Enplegu Zerbitzuko langabetuak kontratatze laguntza-plana 36

2013rako asmoak 36

2012ko txostena

Liburutegiko zerbitzuen zabalkundea egin 2.0. tresnak erabiliz	36
Liburutegiko informazioa mugikorretara eraman	37
Irakurketa klubak.....	37
Hizkuntzen interesgunea eta mintza praktika saioak	38


Liburutegia zenbakitan

Bisitak/Erabiltzaileak

2012 urtea: 132.203 bisita, 2011n baino % 1,32 gehiago

Bisita/biztanle adierazlea:

- 27.541 biztanle Eibarren: 4,8 bisita biztanle bakoitzak
- 2011n batez bestekoa Euskadin: 2,89
- 2010ean batez bestekoa Espainian: 2,4



Bazkide txartela duten erabiltzaileak

2012ko abenduaren 31n, izena emandako erabiltzaileak **9.635** ziren (biztanleriaren % 35)

- 8.088 heldu
- 1.474 ume
- 65 erakunde
- 8 liburutegi

2012an alta emandako bazkideak: **451**.


Helduak: 280
Umeak: 166
Erakundeak: 2
Liburutegiak: 3

Asistentziak ordutegi berezietan

	Asistentzia	Mailegua	Maileguaren batez bestekoa	Itzulketak	Ikas gela
2005	7.184	168	2,33	158	188
2006	6.423	366	6,78	369	171

2012ko txostena

2007	5.828	253	5,27	184	262
2008	3.749	220	5,12	190	58
2009	3.223	134	4,70	95	112
2010	3.695	409	5,18	371	79
2011	2.648	177	2,81	221	72
2012	3.270	322	5,03	257	63



Katalogazioa eta funtsa


2012ko abenduaren 31ko funtsa guztira: 67.025 (% 4,9 gehiago)

2011ko Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko funtsa, guztira: 4.945.854.

Dokumentuak biztanleko Eibarren: 2,43

2011ko batez bestekoa Euskadin¹: 2,30

Batez bestekoa Espainian²: 1,71



¹ 2011n, INEren arabera, 2.146.807 biztanle ditu EAek. Funtsak 4.945.854 ziren guztira


² 2012ko urriaren 1ean, INEren arabera Espainiak 46.116.779 biztanle zituen. Funtsak 78.868.838 ziren 2010ean guztira.

2012ko txostena

Bajak


Galdutako dokumentuak 2012an: 140

Xahututako dokumentuak: 718 + 483 (katalogatuta ez zegoen fondotik)



Jatorria kontuan hartuta urteko sarrerak

Fondo bibliografikoko sarreraren artean %50 erosketaren bidez egiten da. %40 "Besteak" atalean sartzen da: Ministeritzak bidaltzen duena (aldizkariak) eta atzera begirako katalogazioa (liburu hauen jatorria ezin delako ziurtatu). Gelditzen dena, dohaintzen bitartez (%5), Eusko Jaurlaritza (%2), Diputazio (%2) eta Udaletik (%1) jasotzen da.



2012ko txostena

Desideratak

	Eskaerak	Onartuak
Desideratak (erosketa eskaerak)	292	266

Web, blogak eta OPAC kontsultak

Bisitak gaztelaniazko web orrialdean: (<http://www.bibliotecaspublicas.es/eibar>) : 8.278.
 Gehien aukeratutako sailak, besteak beste: Liburutegiko informazioa 2.024, Portada 1.288, Katalogoa 1.130, Zerbitzuak 769, sarrerak Liburutegiko blogetara 287, Katalogoari buruzko tutorialak 453, Loturak eta irakurketa gidak 239 eta Euskal Liburutegi Digitala 143.

Bisitak euskarazko web orrialdean: 9.419.
 Gehien aukeratutako sailak, besteak beste: Portada 4.469, Katalogoa 1.002, Liburutegiari buruzko informazioa 970, Zerbitzuak 381, Katalogoari buruzko tutorialak 326, sarrerak Liburutegiko blogetara 282, Loturak eta irakurketa gidak 286 eta Euskal Liburutegi Digitala 218.


Bisitak helduen blogera (<http://liburutegiak.blog.euskadi.net/eibar>) : 6.692

Bisitak umeen blogera (<http://liburutegiak.blog.euskadi.net/eibarkoumeak>) : 5.898

Bilaketak OPACen: 12.518.

Mailegua

2012an egindako maileguak: **46.191** (2011n baino % 6,2 gehiago)




Mailegu adierazleak:

- **Mailegu bolumena** (2012an zehar bilduman izandako mailegu-kopuru osoa zati bildumaren dokumentu-kopuru osoa): **0,68**
- **Maileguak per capita** (2012an izandako mailegu-kopuru osoa zati biztanle-kopurua): **1,67**


2012ko txostena

- **Mailegugai dauden dokumentuak per capita** (2012an mailegugai egon diren dokumentuak zati biztanle-kopurua): **2,17**
- **Maileguak langileko** (2012an izandako maileguak zati langile-kopurua (6,81) urte horretan izandako lanaldi osoa kontuan hartuta): **6.783**


Liburutegien arteko mailegua: **1.506** (2011n baino % 24 gehiago).



Mailegua euskarriaren arabera




2012ko txostena




Grafikoetan ikus daitekeen bezala, liburua da gehien mailegatu den euskarria: Helduen Liburutegiko kasuan, %66 liburuak izan dira eta %34 beste euskarriak. Maileguen %2 aldizkariak izan dira eta bere erabilpena gehitu egin da %30ean 2011rekin alderatuta; Umeen Liburutegiaren kasuan, %53 liburuak izan dira eta %47 beste euskarriak. Gora egin duena bideoak dira: %31 gehiago, 2011 urtearekin konparatuta

Mailegua Liburutegi bakoitzean




2012ko txostena




Helduen Liburutegian mailegua igo egin da (2011n baino 1.246 mailegu gehiago). Igoera euskarri guztietan izan da, diskoetan eta CD-ROMetan izan ezik.

Umeen Liburutegian ere igoera izan da (2011n baino 1.711 mailegu gehiago). Euskarri guztietan mailegua igo egin da aurreko urtearekin alderatuta, diskoetan eta CD-ROMetan izan ezik, urtetik urtera beherantz doaz eta. **Egiten dugun balorazioa zera da, etxeetan Interneterako sarrera handiagoa dagoela eta horren bitartez eskura dituztela pelikulak, musika, jokoak eta bestelako informazioa...** Helduen kasuan, agian igartzen da liburu elektronikoaren eragina eta liburu tematikoaren maileguaren jaitsiera nabarmena.

Mailegua hizkuntzen arabera




2012ko txostena




Umeen Liburutegian euskarazko 591 izenburu gehiago mailegatu dira, gaztelaniazko 1.121 gehiago eta 116 gehiago ere beste hizkuntzetan. Euskarazko dokumentuen mailegua %44koa izan da.

Helduen Liburutegian, aldiz, euskarazko materialen mailegua jaitsi egin da (%16) 2011 urtearekin konparatuta; gaztelaniazkoena, igo egin da (%6), 1422 izenburu gehiago, eta beste hizkuntzetakoena ere (%15), 539 izenburu gehiago.

Mailegua sexua eta adinaren arabera



2012ko txostena




Mailegu zerbitzua erabili duten emakume-kopurua igo egin da eta gizonena ere bai.

Adina kontuan hartuta, bai umeena eta bai helduena igo egin dira.

Erakundeei egindako mailegua: **478**.


Liburutegien arteko mailegua

- Beste liburutegi batzuei lagatako liburuak: 680 (guztiak sareko liburutegiak)
- Eskatutako liburuak: 826 (Sare barruan 825, eta Koldo Mitxelena 1)



2012ko txostena

Mailegua herriz herri





Ermua	885
Elgoibar	355
Deba	140
Soraluze	146
Arrasate	326
Bergara	122
Zaldibar	50
Lekeitio	133
Azpeitia	62
Errenteria	63
Besteak	601
Guztira / Total	2.883

Erreserbak

Aktibatuta baina baliogabetua	Irakurleak ezabatuta	Maileguan hartuta	Ez aktibatuta baina baliogabetua	Liburutegiak ezabatuta
24	105	1.171	2	114

2012ko txostena

Bazkideak adinaren arabera




2012an, karneta eskatu zuten pertsonen %39k 14 urte baino gutxiago zeukaten. Eta %28 36 eta 60 urte bitartean zeuden.

Baina datu orokorrak hartuta, bazkideen **%36 36 eta 60 urte bitartean daude. Eta %20, 26-35 urte bitartean.**

2012ko txostena


Gehigarriak



2012an jendeari egindako harrera: **94.911**, pasa den urtean baino 1.230 gehiago.


Kontuan hartu diren datuak hauek izan dira: mailegua, itzulketak, erreserbak, Langela eta bazkide berriak.

Telefono-deiak eta bertako kontsultak ez dira kontuan hartu. Ezta Internet eta fonoteka ere



2012ko txostena

Mailegua hiruhilabeteka (Umeak)
Préstamo por trimestres (Niños/as)



Mailegatuenak



2012ko txostena

Helduen artean fikzioa euskaraz

1. Kirmen Uribe, *Bilbao, New York, Bilbao*
2. Iñaki Irasizabal, *Igelak benetan hiltzen dira*
3. Karmele Jaio, *Musika airean*

Helduen artean fikzioa gaztelaniaz

1. María Dueñas, *El tiempo entre costuras*
2. Julia Navarro, *Dime quién soy*
3. Sarah Lark, *En el país de la nube blanca*

Helduen artean, ez fikzioa euskaraz

1. Itziar Etxabe, *Arian 1: euskara ikasteko metodoa*
2. Joseba Sarrionandia, *Moroak gara behelaino artean?*
3. Juan Antonio Letamendia, *Bakarka: método de aprendizaje individual del euskera*

Helduen artean, ez fikzioa gaztelaniaz

1. *Auxiliares administrativos del Servicio Vasco de Salud-Osakidetza*
2. *Enfermeras/os del Servicio Vasco de Salud (Osakidetza)*
3. *Auxiliares de enfermería del Servicio Vasco de Salud [Osakidetza]*

Fikzioa umeen artean euskaraz

1. Pirritx, Porrotx eta Marimotots, *Pirritx*
2. Pirritx, Porrotx eta Marimotots, *Pupu eta Lore*
3. Pirritx, Porrotx eta Marimotots, *Porrotx*

Fikzioa umeen artean gaztelaniaz

1. Jeff Kinney, *La cruda realidad*
2. Jeff Kinney, *¡Esto es el colmo!*
3. Jeff Kinney, *Días de perros*

Ez fikzioa umeen artean euskaraz

1. *Matematikako ariketak*
2. Stéphanie Ledu, *Nire animalien entziklopedia*
3. Marie Kolaczek, *Unibertsoa*

Ez fikzioa umeen artean gaztelaniaz

1. John Malam, *Gran atlas de los dinosaurios*
2. *Todo para el colegio*
3. Richard Walker, *Gran atlas del cuerpo humano*

Aldizkariak helduen artean

1. *Speak up*
2. *Nuevo Estilo*
3. *Casa viva : revista mensual de interiorismo, decoración y diseño contemporáneos*

Aldizkariak umeen artean

1. *Irria aldizkaria*
2. *Caracola: la revista de las niñas y los niños*
3. *Nintendo Acción*

Bideoak helduen artean

1. Darren Aronofsky (dir.), *Requiem por un sueño*
2. Neill Blomkamp (dir.), *District 9*
3. John Carney (dir.), *Once*

Bideoak umeen artean

1. *La vuelta al mundo de Willy Fog*
2. *Hartz Txiki: 9 abentura*

2012ko txostena

3. *Eskerrik asko! (Pirritx eta Porrotx)*

Musika helduen artean

1. Bruce Springsteen & The E Street Band, *Live 1975-85*
2. Pretenders, *The best of; Break up the concrete*
3. Luz Casal, *Pequeños, medianos y grandes éxitos*

Musika umeen artean

1. Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, *Zazpikoloroa*
2. Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, *Irrien lagunak*
3. Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, *Piratak*

CD-ROMak helduen artean

1. Robert Long, *Team : total English active method*
2. Elizabeth Scurfield, *Larousse chino: método integral*
3. *Curso práctico Microsoft: La comunicación digital a tu alcance*

CD-ROMak umeen artean

1. *Txirritx*
2. *Xango*
3. *Barbie: 12 printzesa dantzariak*

Erreserbatuenak



Euskaraz

1. Ramon Saizarbitoria, *Martutene*
2. Fernando Morillo, *Gloria mundi*
3. Karmele Jaio, *Hamabost zauri*
4. Joseba Sarrionandia, *Moroak gara behelaino artean?*
5. Alberto Ladron Arana, *Arotzaren eskuak*

2012ko txostena


Gaztelaniaz

1. Julia Navarro, *Dime quién soy*
2. E.L. James, *Cincuenta sombras de Grey*
3. María Dueñas, *El tiempo entre costuras*
4. Sarah Lark, *En el país de la nube blanca*
5. Kate Morton, *El jardín olvidado*

2012ko txostena

Datu ekonomikoak

Kontu saila	Aurrekontua		Gastu erreala		Aldea		% erreala/aurreikusia	
	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012
Prentsa, aldizkariak, liburuak eta bestelako argitalpenak	12.000	11.000	9.366,64	8.903,05	2.633,36	2.096,95	78,06	80,94
Bestelako hornidurak	19.017	10.580	14.858,42	10.526,96	4.158,58	53,04	78,13	99,50
Protokolo eta ordezkaritza gastuak	1.000	0	0	0	1.000	0	0	
Argitalpenak, publizitatea eta propaganda	1.000	0	0	0	1.000	0	0	
Bilera eta hitzaldiak	3.600	2.700	2.340,82	2.766,00	1.259,18	-66,00	65,02	102,44
Kontratu soziokulturalak	5.500	2.000	3.863,20	1.885,40	1.636,80	114,60	70,24	94,27
Irabazi asmorik gabeko erakundeei	1.500	1.350	1.500	1.350	0	0	100	100
Funts bibliografikoak	25.313,00	23.600	23.587,82	23.132,34	1.725,18	467,66	93,18	98,01
Liburutegiko ekiptoak	2.000	9.202	1.803,28	8.264,84	196,72	937,16	90,16	89,81
GUZTIRA	70.930	60.432	57.320,18	56.828,59	13.609,82	3.603,41	63,87	95,00



2012ko txostena

Jasotako diru-laguntzak

	2010	2011	2012
Eusko Jaurlaritza			
Liburutegiko funtsak berritzeko	13.229,70	11.933,10	10.866,00
Haur eta gazte literatura sustatzeko programak	1.987,20	2.282,30	1.852,00
Teknologia berriak ezartzeko edo garatzeko	15.796,24 ³	10.528,60 ⁴	7.702,00 ⁵
Dokumentu-ondarea eta bertako funtsen digitalizazioa	0,00	3.500,00	Ez da eskatu
Gipuzkoako Foru Aldundia			
Ondare bibliografikoa zaharberritzeko	0,00	1.937,00	Ez da eskatu
GUZTIRA	31.013,14	28.244,00	20.420,00

Ekipamendua

Azalera metro karratutan

GUNEA	METRO KARRATUAK
Helduen Liburutegia	386,37
Hemeroteka eta Multimedia	151,56
e-liburutegia	24,22
Eibarri buruzko bilduma gela	21
Langela	87,5
Umeen Liburutegia	224,27
Txiki Txoko	27,86
Umeen Liburutegiko komunak	10,55
Gordailua	76,99
Biltegiak	43,54
Bulegoak	67,96
GUZTIRA	1.121,82 m²

Irakurtzeko tokiak

GUNEA	UNITATEAK
Helduen Liburutegia	94
Hemeroteka	27
Eibarri buruzko bilduma gela	6
Langela	36
e-liburutegia	8
Umeen Liburutegia	48
Txiki Txoko	21
Internerako ordenagailuak	3
GUZTIRA	243

Ekipamendu informatikoa eta bestelakoa

EKIPOAK	UNITATEAK
----------------	------------------

³ Auto-mailegua, Internet zerbitzua kudeatzeko programa

⁴ Aurikularrak, Zoomtext programa, 3 e-reader, argazki kamera


⁵ Portatilak, Umeen Liburutegiko WiFiren sarrera puntua.

2012ko txostena

Barruko lanetarako ordenagailuak	8
Internet, ofimatika edo CD-Romendako ordenagailuak	11
Ordenagailu eramangarriak	5
Katalogoa kontsultatzeko ordenagailuak (OPAC)	3
Inprimagailuak	4
Desmagnetizagailuak	3
Magnetizagailuak	3
Fotokopiagailuak	1
Barra kodeen irakurgailuak	4
Nobedadeendako pantaila	1
Telebista	1
DVD irakurgailua	1
E-reader	3
Argazki kamera	1
GUZTIRA	49

Irakurketa bultzatzeko jarduerak

LI(BURU-HAUSGARRIAK)



Deskribapena	<p>Irakurketa sustatzeko asmoarekin egindako jokoa da. Inguruaren ezagutza ere bultzatzen da egiten diren galderekin. 6 urte baino gehiago duten umeei zuzenduta dago.</p> <p>Liburuak irakurri behar dituzte eta bueltatzerakoan Eibarri buruzko galderak egingo zaizkie.</p>
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Irakurketa sartzea umeen eta gazteen jarduerara ludikoetan • Euskaraz egindako irakurketa bultzatzea • Eibarri buruz daukaten ezagutza sendotzea • Eibarko Liburutegiko bertako funtsaren erabilera sustatzea eta zabaltzea • Erabiltzaileei Liburutegiko errekurtso informatiboak erabiltzen irakastea • Familiak inplikatzeko umeen aisialdian eta beraien jarduerara kulturaletan parte hartzera gonbidatzea
Noiz	Apirilaren 17tik ekainaren 15era. Sariak ekainaren 19an banatu ziren
Baliabideak	Liburutegiko pertsonala, galderen fitxak, plantillak, 4 bizikleta, 20 "Kalamuako parlamentua" jokoa, barraketarako gonbidapenak
Programaren arduraduna	Umeen liburutegiko dinamizatzailea

2012ko txostena

Aurrekontua	0,00 €. Bizikletak udalak zituen
Ebaluaketa	Balorazioa egiterakoan ezinbestekoa dugu atzera begiratzea. Aurreko urteekin konparatzen badugu parte-hartzea asko jaitsi da. Izen-ematea erdira jaitsi baita. Duela bi urte 54 lagunek eman zuten izena baina 20 lagunek ez zuten ezertxo ere egin, hau da %38k. Aldiz aurten, 25 lagunek eman dute izena eta bakarrik 5 hutsegite izan dugu, %20 hain zuzen ere. Uste dugu ikastetxe batzuetan ez dutela informazioa zabaltzen, beraz, datorren urtera begira informazio kanalak hobetu beharko dira.

LIBURUA, KULTURARAKO SARBIDEA	
Deskribapena	Ekimen honen bidez Udalak nahiz herriko hainbat taldek antolatzen dituzten jarduera kulturaletarako sarrerak zozketatzen dira irakurleen artean. Irakurleak, maileguan liburu bat hartzen duen bakoitzean, papertxo bat jasotzen du; liburua bueltatzen duenean papertxo hori bere datuekin beteta ekarriko du, eta horrela hainbat ikuskizunetara joateko aukera izango du Umeentzako emandako sarrerak (beti bikoitzak izaten dira): 15 sarrera antzerkirako Helduentzako emandako sarrerak (bikoitzak ere): 3 musika-antzerkirako, 20 musikarako eta 3 antzerkirako
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> Aisialdiaz gozatzeko liburua aukeratzen duten erabiltzaileak "saritzea"
Noiz	Urte osoan zehar.
Baliabideak	Liburutegiko pertsonala eta Kultura Zerbitzuak ematen dituen ikuskizunetarako sarrerak
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	Sarreraren kostua
Ebaluaketa	Emandako sarreretatik zenbat erabili diren Zenbat ikuskizunetarako eman diren sarrerak

ZAPATUKO IPUINA

Juan San Martin Liburutegia

Juan San Martin Liburutegia

Deskribapena	Urtean zehar hilaren azken zapatuan ipuin emanaldi bat egiten da. Txotxongilo saioak ere egin izan dira.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> Irakurketa sustatzea ahozko literatura erabiliz Asteburuan aisialdirako aukerak zabaltzea
Noiz	Otsailak 4 eta 25, martxoak 31, apirilak 2 eta 28, urriak 27, azaroak 24
Baliabideak	Liburutegiko pertsonala eta Kutxaren eskaintza kulturala. Kartelak, etab.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna

2012ko txostena

Aurrekontua	430,40 € (urtarrileko eta otsaileko saioak). Besteak Kutzak diruz lagunduta.
Ebaluaketa	Jarraipena egiten da honako hau kontutan hartuta: saiora etorritako ume kopurua, egun horretako eguraldia, saioa nola egon den (kontalariaren kalitatea, ea umeak erakarri dituen, etab.) 422 umek hartu zuten parte ekintza hauetan

MUNDUKO PAISIAK



Deskribapena	Eibarko Juan San Martin Liburutegiak parte hartzen du Eusko Jaurlaritzako Liburu eta Liburutegi Zerbitzuak bideratzen duen " Liburutegiak topaleku " izeneko kanpainan. 2012an gure hizkuntzak izan dira landu dugun gaia. Gida bat egin dugu Hernaniko Liburutegiarekin batera: " <i>Gure hizkuntzak ikasteko aukera... Liburutegian</i> ". Helburua, atzerritarrei gaztelania edo euskara ikasteko materialak eskaini.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Etorkinek Liburutegia beraien kulturako eta hemengo pertsonekin topagune bezala ikustea • Etorkinak gure komunitatean gizarteratzen laguntzea • Liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzuak ezagutaraztea • Liburutegiak beste hizkuntzetan eta beste hizkuntzak ikasteko daukan funtsaren zabalkundea egitea • "Munduko prentsa" zerbitzua ezagutaraztea • Kanpokoak diren pertsonen beraien kultura eta ohiturak zeintzuk diren ezagutaraztea • Hemengoak garenok haiek ezagutzeko aukera ematea
Garatu diren jarduera espezifikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntzei buruzko interesgunea: liburuak, DVDak eta CDak. • Bisita gidatuak: EPAko ikasleak etorri dira Liburutegiak zer eskaintzen dien ezagutzera.
Noiz	Urriaren bukaeratik urtarrilaren bukaerara.
Baliabideak	Gidaren materialak: liburuak, diskoak eta DVDak. Liburutegia hornitzeko materiala.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Liburutegi Zerbitzuak zuzendutako "immigrazio lan taldea", hainbat liburutegik osatuta.
Aurrekontua	Eusko Jaurlaritzak ordaintzen du kanpaina hau. Gastua: 630,24 € gidaren materialetan eta ezer ez bisita gidatuetan, Liburutegiko pertsonalak egin ditu eta.

2012ko txostena

Ebaluaketa	43 pertsona etorri dira bisita gidatuera. Gidako material batzuk maileguan hartu ziren, batez ere urdutik gaztelera ikasteko metodoak.
------------	--

LIBURUTEGI TAILERRA	
Deskribapena	Liburutegi tailerra LHko 6. mailako umeei zuzenduta dago. Nahi duten Eibarko ikastetxe guztiek parte hartu ahal dute gelaka, irakasleak lagunduta.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> Udal Liburutegiaren funtzionamendua ezagutzea: arauak, nola aurkitu eta eskatu materialak, mailegu zerbitzua, funtsen antolamendua apaletan, nola eskuratu Liburutegiko karneta, etab. Umek Liburutegia era ludikoan ezagutu dezaten eta bertan eskaintzen diren zerbitzuak erabiltzen ohitzea
Noiz	Urritik abendura
Baliabideak	Ordenagailuak (OPAC), eta egiten den joko baten materiala: fitzak, etab.
Programaren arduraduna	Umeen Liburutegiko dinamizatzaileak burutzen ditu tailerrak.
Aurrekontua	0,00 €
Ebaluaketa	74 ume beraien irakasleekin. Eibarko 3 ikastetxek hartu dute parte. Oso ikastetxe gutxi izan dira eta azertu beharko da zergatik ez diren etortzen.



UMEEN IRAKURKETA KLUBA



Deskribapena	Klub honen asmoa gurasoek eta haurrek irakurketa konpartitzeko une bat izatea da. Hilean saio bat eskainiko da aditu baten eskutik. Lehen Hezkuntzako 1., 2., 3. eta 4. mailako umeak, amak edo aitak lagunduta. Eibarren erroldatuta daudenek izango dute lehentasuna.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Irakurketa sustatzea, batez ere euskarazko liburuen irakurketa • Liburutegia ezagutaraztea • Kalitatezko liburuak ezagutzea • Guraso eta haurraren arteko irakurketa giroa sortzea, gero etxean ere hori berori egin dezaten • Gurasoak ozenki irakurtzen trebatzea • Haurrek giro lasai batez gozatzea • Irakurketa prozesuan parte-hartze lasaia lortzea
Noiz	Urtarrilak 17, otsailak 14, martxoak 20 eta apirilak 17. Uda pasa ondoren beste ikastaro bati eman diogu hasiera eta 2 saio egin dira 2012an: urriak 23 eta azaroak 20
Baliabideak	Ahal den heinean eta beti ere partaideek eskatuta, aukeratutako liburuen ale bat ekarriko da partaide bakoitzarentzat liburutegien arteko maileguaren bitartez, nobedade bibliografikoak aukeratzen ez badira. Saioetan lantzen diren liburuak erosi egingo dira Liburutegiak ez baditu.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Saioen dinamizatzailea, Txabi Arnal
Aurrekontua	Ikasleek 444 € ordaindu dute matrikula egiterakoan. Guztira, 1.560 € .
Ebaluaketa	10 ume daude, heldu batek lagunduta (20 pertsona). Urtarriletik aurrera ez zaie kobratuko eta plazak berriz zabalduko dira. Taldean zeuden guztiak izena eman dute datorren urterako.

HELDUEN IRAKURKETA KLUBA



Deskribapena	Aldez aurretik aukeratutako liburuez jarduteko saioak hilero. Saioak aditu batek koordinatu eta dinamizatuko ditu, eta parte-hartzaileei liburuak irakurtzeko aholku eta jarraibideak emango dizkie.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Literaturan interesaturik dauden pertsonen harremana sustatzea • Aukeratutako liburuei buruzko iruzkinak egitera sustatzea • Norbanakoaren lana iruzkin, balorazio eta abarren bidez aberasteko aukera ematea irakurleei, balorazio horiek bakoitzarenak, dinamizatzailearenak nahiz klubeko gainerako kideenak izan daitezkeelarik. • Irakurketa sakona egitea dinamizatzaile eta klubaren gainerako kideen laguntzaz, askotan ez baikara konturatzen interesgarriak izan daitezkeen hainbat xehetasunez.
Garatu diren jarduera espezifikoak	Klubaren bi saiorako idazleak ekarri genituen: Karnele Jaio eta Harkaitz Cano.
Noiz	2011n hasita ikastaroan, hauek dira 2012an egin diren saioak: urtarrilak 10, otsailak 14, martxoak 13, apirilak 17 eta maiatzak 9. Uda pasa ondoren ikastaro berria hasi zen: urriak 9, azaroak 13 eta abenduak 11. Urtarrietik aurrera ez da matrikula kobratuko.
Baliabideak	Partaideei saio bakoitzean aukeratutako liburua ekartzen zaie beste Liburutegietatik LAM bidez.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Dinamizatzailea: Txomin Magdalena Arriaga
Aurrekontua	1.840,80 €. Idazleak: 320,00 €. Matrikulekin 509 € jaso dira.
Ebaluaketa	Ikastaroa amaitu eta gero inkesta bat pasatuko zaie partaideei. Guztira 10 pertsona daude, baina urtarrilean izen-ematea berriz zabalduko da.

Gure klubetik aparte, liburuez hornitzen ditugu beste 4 irakurketa klub. Hain zuzen ere, **Pagatxa** eta **Biztu** Elkartekoak, eta **Emakumeen Jabetze Eskolak** eta **Litertxokok** antolatzen dituztenak.

BIBLIOGRAFIA FONDOAREN ERAKUSKETA INTERESGUNEETAN



<p>Deskribapena</p>	<p>Urtean zehar gure bibliografia fondoaren erakusketak antolatzen ditugu Portalea kultur etxearen beste jarduera batzuekin bat datozenak, efemerideak edo beste ekitaldi batzuk kontuan hartuta</p>
<p>Helburuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Liburutegiko funtsaren zabalkundea egitea • Nobedadeak ez diren materialei irteera ematea • Euskarazko irakurketa bultzatzea
<p>Garatu diren jarduera espezifikoak</p>	<p>Egin izan diren erakusketak hauek izan dira: Helduen Liburutegian:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Urte osoan zehar euskarazko nobelak • Urte osoan zehar gaztelaniazko nobelen aukeraketa • Txillardegi • Antoni Tapiès • Charles Dickens • Manuel Lasarte • Emakume literatur Nobel Sariak • Loreak, landareak eta lorezaintza • Indalecio Prieto • Antonio Mingote • Bidai Liburuak • Ekintzaileak • Norvegiar enbaxadak emandako liburuak • Gay eta lesbianen nazioarteko eguna • Ekintzaileak • Nekazaritza ekologikoa • Alzheimerra • Komikiak • Munduko paisaiak: hizkuntzen gidako materialak • Euskadi literatura sariak • Toribio Etxebarria • Nobelak beste hizkuntza batzuetan <p>Umeen Liburutegian:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Gabonetako liburuak eta pelikulak • Sukaldaritza eta esku-lanak • Iñauteriak • Dinosaurioak ezagutzen

2012ko txostena

	<ul style="list-style-type: none"> • Heziketaren aldeko kanpaina • Zientzi fikziozko liburuak • Abenturak, piratak eta bidai liburuak • Aitxita-amamen eguna ospatzeko liburuak • Umeak eskolara
Noiz	Urtean zehar
Baliabideak	Kartelak, erakusketariak eta Liburutegiko funtsa
Programaren arduraduna	Liburutegiko pertsonala
Aurrekontua	0,00 €
Ebaluaketa	Beti nabarmentzen da interesguneetan jartzen den materiala maileguan eramaten dela.

BOOKCROSSING JARDUERA



Deskribapena	<p>BookCrossing-a leku publikoetan liburuak "askatzea" (uztea) da, gero beste irakurleen batek hartu eta gauza bera egin dezan.</p> <p>Galtzagorri Elkarteak proposatuta, aurten Bookcrossing jarduera antolatut dugu Liburutegian Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko asmoarekin.</p> <p>Galtzagorrik dinamizatzailea ipini zuen</p>
Helburuak	Helburua liburuak "oihanean" askatzea da beste norbaitek aurki ditzan.
Noiz	Apirilaren 2an bertan burutu genuen, arratsaldeko 4 eta erdietatik 6etara.
Baliabideak	<p>Baliabide materialak:</p> <p>Askatu genituen liburuak errepikatuta edo erretiratuta zeuden, beraz, ez zuen aparteko kostea suposatu Liburutegiarentzat.</p> <p>Pegatinak guk egin genituen eta erosi zen gauza bakarra, plastikozko poltsak izan zen, euria ari zuen eta liburuak ez bustitzeko kalean askatzen zirenean.</p> <p>Giza baliabideak</p> <p>Galtzagorrik ipini zuen dinamizatzailea.</p>
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna.
Aurrekontua	350 €.
Ebaluaketa	<p>Jardueran ume kopuru txikia izan genuen, hau da, 11 urteko 8 neska bakarrik hartu zuten parte.</p> <p>Gutxi izan arren, oso gustura egon ziren jardueran eta bere parte-hartzea positiboa izan zen.</p> <p>Beste batean egitekotan, guk dinamizatuko dugu jarduera. Ez du pena merezi inor kontratatzea.</p>

2012ko txostena

HEZKUNTZAREN ALDEKO MUNDU KANPAINA

Dokumentalak|Documentales

"En el mundo a cada rato"
Apirilak 24, 17:00etan (10-14 urte)

"Noaga, Burkina Fasoko neskatoa Mozambique, Beto eta bere lagunen herrialdea"
Apirilak 26, 17:00etan (6-9 urte)

Tailerra|Talleres

"Irudi handia: eskubideak hasieratik"
Apirilak 24, 17:00etan (6-9 urte)

Interesgunea| Punto de interés
Apirilaren 18tik 30era



Juan San Martin Liburutegia






Deskribapena	<p>Egoazia Elkartarekin elkarlanean, parte hartu dugu aurten ere kanpaina honetan Liburutegian burutu diren hainbat ekintzarekin. Jarduera hauek antolatu genituen, Egoaziako dinamizatzaileak burutu zituztenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • "En el mundo a cada rato" dokumentala (apirilak 24, 17:00) (10-14 urte) • "Irudi handia: eskubideak hasieratik" tailerra (apirilak 25, 17:00) (6-9 urte) • "Amina y Musa aprenden" dokumentala (apirilak 26, 17:00) (6-9 urte) • Apirilaren 18tik 30era interesgunea jarri genuen Liburutegian, eta materialak maileguan hartu ahal ziren.
Helburuak	Hezkuntzarekiko sensibilizazioa lortzea jendearengan
Noiz	Apirilaren 18tik 30era.
Baliabideak	<p>Baliabide materialak: Ekarrirako materiala ondo zegoen. Agian euskaraz material gutxiago zegoen.</p> <p>Giza baliabideak Liburutegian izaten ditugun koordinazio bileretan azaldu zen nola burutuko genuen kanpaina. Egoaziakoak ere gehiago inplikatu dira aurten, jarduerak dinamizatzen.</p>
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna. Egoaziarekin elkarlanean
Aurrekontua	0,00 €.
Ebaluaketa	Datorren urtean zerbait horrelakoa egitea komeni dela uste dut. Kanpainaren helburuak hobeto betetzen dira horrela

ISLANDIA ETA GROENLANDIA IKUSENTZUNEZKOAREN EMANALDIA



Deskribapena	Islandia eta Groenlandia: belarra, laba eta izotza oinpean (ikus-entzunezkoa) Liburutegiak Asier Aranzabal eta Mila Gallastegi aurkeztu zituen. Ikus-entzunezkoa jarri zuten euskaraz eta amaitu ondoren galderak egon ziren
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Liburutegiak gai honen inguruan daukan materiala ezagutaraztea • Gaiarekin guztiz lotuta dagoen jarduera osagarria antolatzea
Noiz	Maiatzaren 10ean
Baliabideak	Kutxak eskainitako emanaldia.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	Kutxak diruz lagunduta
Ebaluaketa	35 pertsona hurbildu ziren. Emanaldia oso ondo egon zen. Ikus-entzunezkoa oso ondo prestatuta, argazkiak oso onak eta musika eta ahotsen grabazioa kalitatekoa izan da. Edukiak ere oso landuta. Asierrek eta Milak bukaeran egin ziren galderei ere erantzun zieten eta jendea gustura egon zela uste dut.

EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA



Enplegu tailerra emakumeentzako
Taller de empleo para mujeres

Lanbide, Infojobs, lan atariak, curriculum eta elkarrizketak prestatzeko orientabideak.
Lanbide, Infojobs, portales de empleo, pautas para preparar curriculum y entrevistas.

Martxoak 1 de marzo 11:00-13:00
Martxoak 27 de marzo 16:00-18:00

KZgunean emango dira. Izen ematea: Liburutegian
Se impartirán en el KZgunea. Inscripción en la Biblioteca

Biblioteca Juan San Martin
Liburutegia

2012ko martxoa

Literaturako Nobel Saridun Emakumeak
Mujeres Premios Nobel de Literatura



Deskribapena	Martxoaren 8an Emakumearen nazioarteko eguna dela eta, beti jarduerak antolatzen ditugu. Oraingoan emakumeentzako enplegu tailerra eta irakurketa gida bat egin genituen.
Helburuak	Enplegua bilatzeko Interneten dauden baliabideetan trebatzea Literaturako Nobel saridun emakumeak eta beraien lanak ezagutzera ematea
Noiz	Martxoak 1 eta 27. Gidako materialak hil osoan egon ziren ikusgai
Baliabideak	KZgunearekin batera antolatu genuen ikastaroa. Bestetik, gidarako ez genituen liburuak erosi ziren.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	Ikastaroa dohainik eta liburuak 200 € inguru.
Ebaluaketa	18 emakumek hartu zuten parte ikastaroan eta ebaluaketa positiboa egiten dugu.

Bestela asko irakurtzen ez den literatura apaletatik atera eta ezagutzera eman genuen.

LIBURUAREN NAZIOARTEKO EGUNA: LIBURUTEGIA KALERA



Deskribapena	Liburuaren nazioarteko egunean Liburutegia kalera atera genuen, gure zerbitzuak eta jardueren zabalkundea egiteko asmoz
Helburuak	Liburutegia ezagutzera ematea Zerbitzuen informazio foiletoak banatzea Liburutegia erabiltzen ez duten pertsonen artean.
Noiz	Apirilaren 23an
Baliabideak	Udaleko brigadak lagundu zigun material guztia Untzagara eramaten. Liburutegiko bi pertsona egon ginen bertan zabalkundea egiten. Informatikatik ere lagundu ziguten WIFI konexioa martxan jartzen.
Programaren arduraduna	Liburutegiko arduraduna
Aurrekontua	0,00 €
Ebaluaketa	Oso eguraldi txarra egin zuen egun horretan. Megafonia geneukala eta, jendea hurbildu zen han zer zegoen ikustera. Baina kalean jende gutxi zebilenez, ez genuen espero genuena lortu.

Martxan jarritako proiektuak


Irakurketa klubak (Sareko programan sartu)

2011n Eusko Jaurlaritzak proposamen bat zabaldu zuen irakurketa klubengatik inguruan. Batzorde bat sortu zen irakurketa klubak martxan zeukatzen hainbat liburutegirekin. Talde honen helburua klub hauetarako liburu-sortak erostea eta liburutegien artean konpartitzea zen.

Irakurketa kluba martxan daukagunez, eta irakurketa kluberako hainbat elkarteren liburuak lortzen ditugunez, talde honetan sartu gara parte hartzearen abantailak aprobetxatzeko.

Eibarko Liburutegiak liburu-sorta bat erosi du eta beste liburu-sorta bat Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuaren diru-laguntzaren bitartez eskuratu du.

Alfabetizazio digitala eta bizitzan zeharreko ikaskuntza



Gure asmoa gazteak IK Tetan trebatzea da, beraien interesak zeintzuk diren kontuan hartuta.

Hasierako asmoa era informalean ikaskuntza hau eskaintzea izan zen, baina azkenik, diru-laguntza eskatu dugu portatilak erosteko eta umeen liburutegiko WIFI seinalea handitzeko.

Hau lortzen dugunean, UEUrekin lankidetzan, ikastaro batzuk antolatuko ditugu 2013ko urte hasieran 3., 4., 5. eta 6. mailako umei zuzenduta.

Ikastaro hauetan landuko diren programak hauek dira: Tux Tipping (mekanografia), Tux Paint (marrazketa), Pixton for fun (komikiak egiteko) eta Scratch (programazioan lehenengo hastapenak egiteko)

Prestakuntza ikastaroak

Aurten egin ditugun ikastaroak honako hauek izan dira:

- Análisis de Discursos ante la inmigración extranjera. Eva Alberdi. 3 ordu
- Taller practico sobre e-books&e-readers: su aplicación y utilidad en bibliotecas. Yolanda Isla. 12 ordu
- Esatetik egitera. Eva Cortijo. Eva Alberdi. 11 ordu.
- Tratamiento de imágenes digitales. Eva Alberdi. 8 ordu

Euskal Enplegu Zerbitzuko langabetuak kontratatzeko laguntza-plana

Laguntza-plan honen bitartez bi pertsona hartu ziren 2011 urtean sei hilabeterako.

2011ko irailetik 2012ko martxora pertsona bat egon zen. Eta 2011ko abendutik 2012ko ekainera beste pertsona bat hartu genuen.


Pertsona hauek publikora begira lan egin zuten eta Liburutegi laguntzaile lanpostuaren ezagutzak hartu zituzten. Beste lan batzuetan ere aritu ziren: inbentarioa, Liburutegiko foiletokak eta karteldegia, interesguneak, aldizkarien informatizazioa, etab.

2013rako asmoak

Liburutegiko zerbitzuen zabalkundea egin 2.0. tresnak erabiliz

Ditugun blogei, twitter eta facebook profilei eta beste tresnei etekinak atera Liburutegian antolatzen dituen jardueren berri emateko.

Horretarako zabalkundea egingo dugu erabiltzaileen artean, blogetan harpidetzak lortu ahal izateko eta twitter eta facebook perfilen jarraitzaileak lortzeko.



2012ko txostena



Liburutegiko informazioa mugikorretara eraman

Mugikorretarako aplikazioa lantzen ari gara. Horrela, bai Liburutegiko informazio oinarrikoa, bai egiten diren jarduerena edota sartzen diren nobedadeena, mugikorretan modu erosoan jasotzeko moduan ipiniko ditugu.

Irakurketa klubak

Euskarazko irakurketa kluba jarri dugu martxan urtarrilean, **“Idazlearekin berbetan”** izenpean. Jarduera honetan, idazleak bere liburua irakurri duten irakurleei haren gaineko ideiak, esperientziak eta bizipenak elkartrukatzeko aukera eskainiko die, aurrez aurreko solasaldien bitartez.

Urtarrietik apirilera eta urritik abendura izango dira saioak, hilean behin.

Bestetik, gaztelerazko helduen irakurketa klubarekin eta umeen irakurketa klubarekin ere jarraitzeko asmoa daukagu. Hauetan, eta plaza libreak gelditzen direnez, izena emateko epeak zabalduko ditugu saio bakoitzeko.

Hizkuntzen interesgunea eta mintza praktika saioak

Hainbat urtetan lantzen ari gara hizkuntzak gure Liburutegian. Honako hauek hornitzen dute hizkuntzen atala: hizkuntzak ikasteko metodoak, elkarrizketa gidak, literatura, ikus-entzunezkoak, etab. Baina momentu honetan Liburutegian zehar sakabanatuta dago material hau guztia.

Interesatuta dauden pertsonen bilaketa eta mota honetako materiala eskuratzea errazteko, interesgune finkoa jartzeko asmoa daukagu. Bertan izango dira arlo honekin zerikusia duten material hauek guztiak.

Eta gaiari lotuta, urtarriletik aurrera hizkuntzak praktikatzeko bilerak antolatu ditugu astean behin. Ingelesa, frantsesa eta alemana praktikatzeko aukera izango du jendeak.

EHUk eskaintzen duen praktiken programari esker hiru dinamizatzaile lortu ditugu ekintza hau aurrera eramateko.

Momentuz erantzuna oso positiboa izan da.